

telebista ♦ irratia

Ehizako espezieen inguruko dokumental saila aurki ETBn

‘Vientos de caza’ saioa egin dute ETBren eta Terrafilms ekoiztetxearen artean

Erredakzioa / Donostia

Iberiar penintsulako zinegetika espezieei buruzko dokumental saio bat estreinatuko du hemendik gutxira ETBk. Naturako irudi ikusgarriak ikusi ahal izango dira 13 ataletan.

NAFARROAKO Terrafilms ekoiztetxea eta ETB iazko udan hasi ziren *Vientos de caza* dokumental saila grabatzen. Paraje desberdinetako faunaren irudiak hartzen ibili dira urtebetez, Nafarroan, Errioxan, Gaztela-Mantxan, Extremaduran, Kantabrian eta Asturiasen. Grabatzeko moduari dagokionez, 16 milimetroko zinema formatuan grabatu dute eta sistema digitalean postproduzitu. Lanaren zuzendaria Javier Gonzalez Purroy izan da.

Vientos de caza saioak zinegetika espezieen garrantziari buruzko informazioa zabaltu nahi du, eta herritarrek gai zabala horren inguruan hezi. Animalia horien biologia eta naturan duten eginbeharra, bai eta gizakiak horien zainketarako eta aprobetxamendurako egingo dako ahalegina izango da



EGUNKARIA

Basurde familia bat, Zaraitzu ibarreko bazter batean. *Vientos de caza* saioa atal bat basurdeei eskainiko diete.

ikusgai. Halaber, inguru bakoitzean dauden animalia multzoen ikuspegi orokorra eta gizakiak eurengan duen eragina erakutsiko dute.

Hamahiru ataletan, Iberiako penintsulan ehizatu daitezkeen espezie nagusien inguruan hitz egingo dute erreportaietan. Atal bako-

tzean animalia bat azalduko dute: pagausoa, eper gorria, basurdea, untzia, orkatza, sarrioa, ahatea, oreina, antzara, galeperra, usapal arrunta, birigarroa eta azeria.

Infografia tekniken bidez, espeziea gaur egun bizi deneko lekuak eta talde bako-

tzearen dinamikak erakutsiko dira, sedentario eta migratorio irizpideak kontuan hartuta. Gizakiaren ehiza teknikak eta jarduerak horiek espezie bakoitzean duen eragina aztertuko dituzte. Teknikariak espezie horien inguruan egindako azkeneko ikerketak ere azalduko dira.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

Zenbakien koloreak

sasisozilogikoak. Guztiz interesantea izaten da Arzalluzen edozein hitz gai hauer hamaikagarren itzulua emateko ordu oportunistetan. Argi dago komunikabideak zeruko mana pozoituaren zain dauden bezalaxe daudela halako isurketa diskurtsalaren zain beste ezer ez duteneko.

Euskaldunak, nahiz eta piezarik ez mugitu, nahiz eta ezer ez egin, beti gaude egunerokotasunaren kandelabroa pizten. Telebistak ere makina bat etekin ateratzen dio edozein egoera kietoari. Eta mugitzen garenean, zeresanik ez! Eta gure Arzalluz ez da geldirik geratuko den pieza horietakoa. Jakina. Gizartearen prozesu presentzialeko alde ilunean kokatu gaituzte, eta joera horrek etengabeko zirkuluarena dirudi. Oraingo honetan PPK EITB delako zuzendaria, lehendakariak

gain, noski, bere kohorte eta kordel berekoa nahi du. Esparru guztietako *striptease*-eko protagonistak izan nahi dute. Inor ez da inoiz hain urrun heldu soinu batekin! Politikaren hezetasunak dena bustitzen baitu. Argi dago printzipioz hori ez dela ez txarra ez ona. Baina materia manipularria bihurtzen zarenean ezin duzu zurea menperatu, hainbat errealitate katodikorik gertatzen zaien legez. Telebistaren gordinkeria, hainbat kasutan salagarria izan arren, bakoitzaren enpresaren intereserako asmatzen da. Audientziak, elektrizitatearen bezalaxe, masarena besterik ezin du egin. Ezjakintasun pasiboak dituen arriskuak neurtu gabe egon arren egunero ikusten ditugu dituen eragin bereziak. 2001. urtean Marxen figura berrikusi nahi dute. Biografiak, pelikulak eta ez dakit zenbat beste gauza egingo dituzte haren irudiarekin. Hori bai, iparramerikarrek. Berpiztu dadila, arren!

laburrean

CCOO eta UGT sindikatuak RTVEren eta SEPIren koordinazio falta salatuko dute

RTVEren etorkizuna ez dago oso argi une honetan, eta CCOO eta UGT sindikatuak kezkatuta daude. «RTVEren eta SEPIren arteko koordinazio falta oso larria da, eta horren ondorioak urtarilaren 1etik aurrera pairatuko ditugu ziurrenik», esan du UGTko Francisco Andujarrek. Izan ere, egun horretatik aurrera RTVE SEPIra adskribatuta geldituko da. «Dena airean dago», salatu dute sindikatuetako ordezkariak.

Tele 5 kateko ‘¿Quiere ser millonario?’ lehiaketak 300. saioa emango du gaur

Carlos Sobera bizkaitarrak aurkeztzen duen *¿Quiere ser millonario?* 50x15 lehiaketa 300. emanaldira iritsi da. Saioa iazko apirilaren estreinatutako zuten, 3.200 lehiakide pasatu dira bertatik, eta mila milioi pezetan banatu dituzte. Lehiaketaren audientziaren batez bestekoa %25,5ekoa da. Astelehenetik ostiralera 19:50ean emititzen dute, larunbategi 21:00etan eta igandetan 21:30ean.

Adinekoek jasotzen duten laguntza aztergai ‘Bertatik bertara’ saioan

Milagarren atalaren ospakizunaren ostean, lanean jarraitzen dute ETB1eko *Bertatik bertara* magazinekoek. Gaur, lehenengo edizioan (14:00etan), adineko gaixoei jasotzen duten laguntzaz hitz egingo dute. Horretarako, Iñaki Leturia Azkoitian egon da boluntario lanetan dabilzan bi emakumerekin hizketan.

Lehenengo gizakiaren bila La2-eko dokumental sail batean

La2 kateko *Grandes documentales* saioan lehenengo gizaki taldeen inguruko hiru dokumental emango dituzte. Aurrenekoa, *En busca de los orígenes*, gaur eskainiko dute, 16:45ean.

GENEOGRAFIK dioenez, Mesopotamia ekialde emankorraren hurbiltasunak adierazten du Rh negatiboaren frekuentzia demografikoa. Eta Euskal Herriko biztanleena da betidanik (duela 9.000 urte ingurutik) ehunekotan portzentaia nabarmenetakoa. Ehuneko laurdena baita gurea. Ez dakit datu horrek nor mindu dezakeen, baina argi dago ez dutela ez bazter ez besteok oso gogokoa. Galiziarrek genetikoki gainerako auzokide geografikoek baino bi globulu gehiago dituztela esango balu Fraga batek ea nor ausartuko litzatekeen adierazlea errefusatzeko. Ba Isabel San Sebastian ez, noski. Arraza kontuetan mila topiko eta tabu dauden arren badaude konstatazioak besterik ez diren hainbat detaile objektibo gauzak dauden baino gehiago ez nahasteko. Ni, adibide gisa, arraza zurikoa naiz. Baina ez oso zuria ere. Hala eta guztiz, oso emankorrak suertatzen dira halako eztabaida